

Ordizian, **2009ko uztailearen 24ean**, UDALBATZA elkartu da bilkura-aretoan OHIKO bilera egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Jose Migel Santamaria Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea.	EAJ taldea
Jon Txurruka Etxezarreta jauna	EAJ taldea
Miren Auzmendi Urkiola andrea	EAJ taldea
Belen Maiza Urrestarazu andrea	EA taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Jose J. Lopez Fernandez	PSE/EE (PSOE) taldea
Mónica Marañón Basarte andrea	PSE/EE (PSOE) taldea
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Iñigo Manrique Cía	PP taldea

BERTARATU EZ DIRENAK:

Maialen Galparsoro Odriozola andrea EB-Berdeak/Aralar taldea

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTU-HARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jauna

INTERPRETEA:

Izaskun Zubitur Iñarra



BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2009ko maiatzaren 28ko Osoko Bilkurako akta onartzea.
..... **4. orr.**
- 2.- 2009ko ekainaren 22ko Osoko Bilkurako akta onartzea.
..... **5. orr.**
- 3.EA-EB/Aralarrek Oianguren Parke Publikoari buruz aurkeztutako mozioa
..... **5. orr.**
- 4.Iparra-Hegoa garapen kooperaziorako diru-laguntzak onartzea.
..... **8. orr.**
- 5.Eguneko Zentroaren zerbitzua kudeatzeko esleipenerako klausula ekonomiko, administratibo eta teknikoen plegua onartzea.
..... **11. orr.**
- 6.- Hizkuntza eskola ofiziala sortzea.
..... **13. orr.**
- 7.2008ko kontu orokorra onartzea
..... **14. orr.**
- 8.Uraren kudeaketa integrala
..... **15. orr.**

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

Jendea etorri da osoko bilkurara.

GALDE-ESKEAK

- .- Osoko bilkuretako ordutegia.
- .- "Presoen Lagunak"ek aurkeztutako mozioa.
- .- Udaleko webgunean Oiangu eta Gazte Asanbladari buruzko informazioa debekatu izanaren zurrumurruari buruz informazioa eskatzea
- .- Argiteria publikoko gaien hartutako neurriengatik zorientzea.
- .- UPABI inguruan CAFek jarritako pabilioiei buruzko informazio eskaera.
..... **17. orr.**



ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 8,10 H.

BUKAERA ORDUA: 9,30 H.



Batzordeburuak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez

1.- 2009ko maiatzaren 28ko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

- 2009ko maiatzaren 28ko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Asenjo jauna

Aktaren 14. puntuan, "Galde-eskeak" puntuan bere esku-hartzea azaltzen da, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko mozioak sartzekoan gobernu taldean irizpide argirik ez dagoela berak esan izan balu bezala azaltzen da. Esku-hartze hori Leunda jaunaren galderari erantzutea da, gobernu taldeak mozioak tratatzeko dituen irizpideak zeintzuk diren diona. Asenjo jaunak dio Leundaren galdera ez dela puntuan sartu.

Zuzenketa egin da.

Bozketa

Eztabaida bukatu eta gero eta bertaratutako herritarrei esku hartzeko aukera emanda, Alkateak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, EA2, PSE-EE (PSOE) 2, PP1, EB-Berdeak/Aralar 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 1.Marañon andrea PSE-EE (PSOE) abstenitu egin da osoko bilkura horretara ez etortzeagatik.

Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Alkate jaunak gai-zerrendako bigarren puntuaren berri eman du:



2.- 2009ko ekainaren 22ko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2009ko ekainaren 22ko Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta: Bat ere ez.

Bozketa

Eztabaida bukatu eta gero eta bertaratutako herritarrei esku hartzeko aukera emanda, Alkateak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, EA2, PSE-EE (PSOE) 2, PP1, EB-Berdeak/Aralar 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 1.Marañon andrea PSE-EE (PSOE) abstenitu egin da osoko bilkura horretara ez etortzeagatik.

Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Alkate jaunak gai-zerrendako hirugarren puntuaren berri eman du:

3.EA-EB/Aralarrek Oianguren Parke Publikoari buruz aurkeztutako mozioa

Proposamena

2008ko ekainaren 16an, Obra bulegoan informazio eskaera aurkeztu genuen, Oianguren parkeko golf zutoinei emandako produktuei buruz. Urrian produktua kreosota zela esan ziguten, oso produktu toxikoa. Gero, Osasun Zerbitzuaren bi txostenen arabera eta PRE/2666/2002 aginduaren arabera, golf zelaietan kreosotarik ezin dela erabili jakin genuen.

Udalak IKENGUUri zutoinak kentzeko bi aldiz eskatu diola eta hondakin arriskutsu gisa kudeatzeko esan diola, eta IKENGUK oraindik ez dituela kendu ikusita,

Osoko Bilkurari eskatzen diogu:



- 1- Orain arte IKENGU enpresak ez dienez gure eskaerei jaramonik egin, eta obren baimenik gabe eta ur hondakinen baimenik gabe lanean ari direnez, Udalak Oianguren Parkeko golf zelaia ixteko.
- 2- Zutoinak lehenbailehen kenarazi ditzala eta kontzesio enpresak hondakin arriskutsu gisa kudeatu dezala.
- 3.- Oianguren Aisigune proiektua eta lanak geldirik daudela ikusita, ingurumen ikerketarik egin ez dela ikusita, eta neurri zuzentzailerik bete ez dela ikusita, Oianguren parkearen inguruko batzorde bat sortzeko eskatzen dugu, eta egoerari eta parkearen etorkizunari buruzko hausnarketa bat egiteko eskatzen dugu Tokiko Agenda 21eko Foroetan eta behar diren neurriak hartzeko.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Huesa andrea

“Oiangu Bizirik” plataformako ordehari gisa, latza iruditzen zaio praktika kantxa urte betez martxan egotea udal baimenik gabe eta gainera kantxa irekita jarraitzea oraindik larriagoa da sareei eusten dieten zutoinetan "kreosota" tratamendua erabiltzen denean, horri dagokion Osasun Sailaren aurkako txosten bat dagoenean espedientean.

Gainera kantxaren inguruko gauza gehiago dagoela esan du eta gertaera horietan prebarikazioa dagoen edo ez dioen txosten bat egiteko eskatu du.

Adierazi du herritar guztiekin ez dela berdin jokatzeko, eta oraindoz jarduera itxi beharko litzatekeela esan du.

Aurka dago herritarren gehiengoa bezala, eta ezin du ulertu nola Udalak, krisi garaian egonda, proiektuarekin jarraitzeko asmoa duen. Porrota dakarren proiektu bat dela esan du. Proiektuarekin lau urte daramate eta oraindik ez da bukatu.

Komenigarriena partaidetzarako Batzorde bat edo foro bat sortzea da , eta sentsibiltate desberdinekoek parte hartuko dutena.

Alkate jauna

Erantzun dio esanez proiektu on bat dela, gobernu taldeak horretan sinesten duela, eta gaur egungo krisi egoera kontuan hartuta lana sustatzeko era bat dela iruditzen zaio, eta proiektuak aurrera egingo duela badaki.



Asenjo jauna

Azaldu du beraiek (EA) proiektuaren aldekoak direla legea betetzen bada beti ere, eta kontzesioaren enpresarekin haserre xamar daudela esan du, beraien lanak ez dituztelako behar bezala egin. Aldeko botoa emango dute, hori bai, kreosotarekin tratatutako zutoinak kentzeko baldintza bakarrarekin.

Huesa andeari erantzun nahi izan dio, eta Oinagu gaia bere talde politikoarentzat gai tabu bat ez dela esan dio. Udaleko Agenda XXIeko arduradun delegatu bezala, plataformaren atzetik ibili da bere iritzia entzuteko. Ez zaie aterik itxi.

Huesa andrea

Adierazi du berak Oinagu tabu gai bat dela esaten duenean Udalaren informazio kanaletan ez dela azaltzen da, eta aurrera pausoren bat ematen denean bakarrik azaltzen dela, eta atzeko zikinkeria gutzia ezkututzen dela.

Leunda jauna

Gai honetan gobernu taldearekin bat ez datorrela esan du, gauzak ezin dira okerrago egin, eta lotsa bat da. Informazioa ezkutatu da eta jakinda legearen kontra jokutzen ari dira.

Alkateak orain dela urte bete inauguratu zuen kantxa eta oraindik ez du lizentziarik. Osasun Sailak zutoinak kendu behar direla esan du. Guztiak balio du, ez da ezer gertatzen.

Gobernu taldeak oraindik atzera egin dezakeela uste du eta behar diren parte-hartze bideak finkatu daitezkeela herritarren hotsa entzun ahal izateko.

Proiektuaren aurka dago, eta aurrera eramateko eraren kontra.

Asenjo jauna

Mozioa puntuz puntu bozkatzeko eskaera egin du, eta onartu da.

Bozketa puntu 1

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 1 (EB-Berdeak/Aralar)

Kontrako botoak: 7 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1)

Abstentzioa: 2 (EA)

Dubreuil jaunak ez du bozkatu.



Alkate jaunak aurkeztutako proposamena ez-onartutzat eman du.

Bozketa puntu 2

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 4 (EB-Berdeak/Aralar 1, EA 2, PP 1)

Kontrako botoak: 6 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 2)

Abstentzia: 0.

Dubreuil jaunak ez du bozkatu.

Alkate jaunak aurkeztutako proposamena ez-onartutzat eman du.

Bozketa puntu 3

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 1 (EB-Berdeak/Aralar)

Kontrako botoak: 7 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 2, PP 1)

Abstentzia: 2 (EA)

Dubreuil jaunak ez du bozkatu.

Alkate jaunak aurkeztutako proposamena ez-onartutzat eman du.



Alkate jaunak gai-zerrendako laugarren puntuaren berri eman du:

4.Iparra-Hegoa garapen kooperaziorako diru-laguntzak onartzea.

Proposamena

Kooperazio proiektuetarako Gobernu Kanpoko Erakundeei diru-laguntzak emateko Araudiaren arabera, eta dagokion deialdia egin ondoren, 14 proiektu aurkeztu dira.

2008ko deialdirako aurrekontu partida, 112.000 €koa da.

Aurkeztutako 14 proiektuen artetik, eta enpresa espezializatuaren balorazio txostena ikusi ondoren, eta 2099ko uztailaren 15eko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeko aldeko erabakiarekin, honakoa proposatzen da:



AKORDIO PROIEKTUA

Ondoren zehazten diren erakunde eta proiektuentzako diru-laguntzak onartzea:

1. Taupada Elkartea 12.000 euro, “ Bolibiako emakume indigenek boterea berreskuratzeko esnekien kontsolidazioa”.
2. Mundu Bat Fundazioa. 11.981,18euro, “La Gabriela, Camagüey, Cuban nekazaritza eta abelazkuntzako ekoizpenari laguntza”.
3. Gipuzkoako Oscar Romero, 12.000 euro, “ El Salvadoreko Tacvuba udalerriko Caserío Los Oranteseko ikastetxean informazio eta komunikazio teknologietara sarbidea" proiekturako.
4. San Viator Elkartasun Zerbitzua. 7.377,06euro, “ Burkina Fasoko Banforan zereal eta aleak lantzeko errota eraikitzea” proiekturako.
5. Emaús Gizarte Fundazioa, 10.819,10 euro, “Peruko Lambayequen ingurumen defentsarako eta garapen jasangarrirako bertakoek boterea berreskuratzea" proiekturako.
6. Esku Batuak, 11.129,53 euro, “Guatemalako Huistako lau udalerritan indigenen baldintza sozialak hobetzeko" proiekturako.
7. Gazteak eta Hirugarren Mundua, 6.000 euro, "Togoko Cinkassen denda-tailerra eraikitzea" proiekturako.
8. Rokpa Euskadi, 3.000 euro, "Tibeteko Yusten lehen eta bigarren hezkuntzako" proiekturako.
9. Activos Mundo Solidario, 10.000 euro, “Nicaragua, Carazo, Diriamban gaitasun desberdineko gazteen integrazio eta irisgarritasun” proiekturako.
10. Denok Osasunaren Alde, 3.727,72, "Bolivian, Beniko departamentuko ospitale publikoei laguntza programa osasun arloko langileen gaikuntza eta formazioan laguntza emateko” proiektua.
11. Medicus Mundi, 11.965,41 euro, “Nepaleko gazteentzako lanbide eskola baten ekipamendua” proiekturako.
12. Misiones Diocesanas, 12.000 euro, “ Haitiko Jacmelen “Derecho a ser Niño” haur parkea” proiekturako.



Erakunde hauek aurkeztutako diru-laguntza eskaera ukatzea, azaldutako arrazoi hauengatik:

- **Gosako Eskola Katolikoa zabaltzea, honengatik:**
 - * Eskatzailearen datuak ez zehaztea.
 - * Bertako bazkidearen erregistroa falta izana.
 - * Eskatutako kopurua ez zehaztea.
 - * Proforma fakturari kez aurkeztea.

- **Gorabide kultur elkarte, honengatik:**
 - **Proiektuak ez du deialdiaren xedearekin bat egiten, ez du Hegoaldean garapen egitasmorik egiteko proiekturik eta ez du Hegoaldeko kontraparterik. Euskadin hizkuntza eta kultur ekimenak antolatzen ditu eta Erkidegoan biz idiren Hegoaldeko Komunitateekin parte hartzen dute.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate jauna

Deialdiaren barruan aurkeztu dituztela azaldu du, guztira 14 proiektu direla, eta 12 proiekturi eman zaiela laguntza, gutxieneko puntuaketa horiek lortu baitute.

- .- 8 proiektu Ameriketean
- .- 2 proiektu Asian
- .- 2 proiektu Afrikan

Bozketa

Eztabaida bukatu eta gero eta bertaratutako herritarrei esku hartzeko aukera emanda, Alkateak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11(PNV 4, EA 2, PSE-EE(PSOE) 3,EB/ARALAR 1, PP 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0.



Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Alkate jaunak gai-zerrendako seigarren puntuaren berri eman du:

5.Eguneko Zentroaren zerbitzua kudeatzeko esleipenerako klausula ekonomiko, administratibo eta teknikoen plegua onartzea.

Proposamena

2009ko ekainaren 22an Eguneko Zentroaren Araudi arautzailearen behin-behineko onarpena egin zen, une honetan jendaurrean jarrita dago.

Araudiaren eta Foru Aldundiarekin sinatuko den Hitzarmenaren arabera, Udalak aipatutako zerbitzua eskainiko du kontratatutako enpresaren esleipen bidez.

Osoko Bilkurari dagokio dagokion plegu administratibo eta teknikoak onartzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen Xedapen Gehigarriaren arabera, urte askotako kontratu bat izateagatik, 4 urtekoa.

2009ko uztailaren 15eko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.Eguneko Zentroaren zerbitzua kudeatzeko esleipenerako klausula ekonomiko, administratibo eta teknikoen plegua onartzea, aipatutako zerbitzuaren Araudi Arautzailearen behin betiko onarpenari baldintzatuta.

2.Kontratazio honetarako lizitazioaren deialdia egitea, Zerbitzuaren Araubide Arautzailearen behin betiko onarpena egiten denerako atzeratuta geratzen da.

3.Alkate jaunari esleipena egiteko eskumena eman.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:



Alkate jauna

Guneko Zentroko zerbitzua martxan jartzeko plegu hauek onartu behar direla adierazi du.

Dubreuil jauna

Alderdi politikoen laguntza eskertu du.

Datorren hilean, irailean, Zentrora plaza kontzertatuentzako Aldundiarekin Hitzarmena sinatzea espero du.

Eguneko Zentrora joaten diren pertsonen senitartekoek egin dituzten iradokizunak jaso dituztela adierazi du.

Etxebizitzako atetik Zentrora arteko garraioa nahiko egokia dela adierazi du.

Amundarain jauna

Jendartetik esan du kudeatzeko eraren kontra dagoela, zerbitzu publiko bat dela uste du eta publikoa izanik Udalak era zuzenean eskaini beharko lukeela. Bestela, adinekoen egoitzan gertatu dena gertatuko da.

Dubreuil jauna.

ANV edo ezkerreko ia udal guztiek zeharkako kudeaketaren bidez egin dutela erantzun dio.

Leunda jauna

Dubreuil jaunari esan dio norberak badakiela zer defendatzen duen, baina bitarteko gisa enpresa bat sartzen denean ordaintzen den dirua tartean geratzen dela eta ez zaiela langileei iristen.

Udalak zerbitzuaren eskaintza egitean langilearen soldata gehi enpresaren industria-irabazia izan beharko litzateke, eta enpresaren irabaziaz zehaztu eta mugatu beharko liriteke.

Dubreuil jauna.

Egoitzen eta Eguneko Zentroaren Hitzarmena sinatua dagoela esan du eta langileen soldata errespetatzen dela. Soldata baxua bada enpresa eta sindikatuen artean negoziatu beharko litzateke, baina uste du Udalak ez duela sartu behar.

Enpresak funtzionamendu gastuak ditu, besteak beste: bulego bat irekitzea, zerbitzuaren koordinatzaile bat kontratatzea...etab, Irabazi-tartea ez da guztia eta Ordiziako kasuan, irabazi-tartea nahiko txikia da.



Leunda jauna

Aretxabaletan Udala Aralarrek kudeatzen duela adierazi du, kontzesio-enpresak langileak subrogatu ditu eta Udalak UDALHITZekiko dagoen aldea jartzen du, kaltetutako langileak jubilatuta arte.

Bozketa

Eztabaida bukatu eta gero eta bertaratutako herritarrei esku hartzeko aukera emanda, Alkateak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 2, EA 2, PP 1)

Kontrako botoak: 1 (EB-Berdeak/Aralar)

Abstentzioa: 0.

Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Alkate jaunak gai zerrendako seigarren puntuaren berri eman du.

6.- Hizkuntza eskola ofiziala sortzea.

Proposamena

Hizkuntza Eskola Ofiziala moldatzeko obren esleipenaren berri eman da, 2009ko uztailaren 15an, lanak datorren urrian amaituko dira eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntzarekin finantzatu da.

Ekainaren 5eko 383/2009 Dekretuaren berri eman da, iragarkia 2009ko ekainaren 16eko EHAOn argitaratu da; bertan Ordiziako Hizkuntza Eskola Ofizialaren funtzionamendua sortu eta martxan jartzen da, frantsesa eta ingelesa irakasteko.

2009ko uztailaren 15eko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

- **Ordiziako Hizkuntza Eskola sortzea, udalerrri honetako Barrera parkea z/g helbidean, frantsesa eta ingelesa irakasteko.**
- **Eskola martxan jartzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Hezkuntza Sailarekin lankidetzak formulak martxan jartzea.**



Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate jauna

Obrak nahiko bizkor doazela adierazi du eta Zentroa urrian irekiko dela.

Bozketa

Eztabaida bukatu eta gero eta bertaratutako herritarrei esku hartzeko aukera emanda, Alkateak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2, PP 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 1 (EB-Berdeak/Aralar)

Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Alkate jaunak gai zerrendako zazpigarren puntuaren berri eman du.

7.-2008ko kontu orokorra onartzea

Proposamena

Kontuen batzorde Bereziak, 2009ko ekainaren 5ean egindako bileran, 2008ko Aurrekontuaren Kontu Orokorraren aldeko txostena egin zuen.

Aldeko txostena jendaurrean jarrita egon da 2009ko ekainaren 18ko GAOren 161 zenbakiko iragarki bidez, eta ez da erreklamaziorik egin, eta iragarkian azaltzen den bezala hasierako txostena behin betiko bihurtzen da.

Gipuzkoako Toki Entitateetako Aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua aplikatzeko, Osoko Bilkuran aurkezten da honakoa onartzeko

AKORDIO PROIEKTUA



2008ko Aurrekontuaren Kontu Orokorra onartzea

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Kontu-hartzaile jauna

Kontu Orokorra osatzen duten agiriak lotu eta azaldu ditu.

Kontuen batzorde Bereziaren aldeko irizpenarekin eta agiria jendaurrean jarrita, osoko bilkurari dagokio behin betiko onartzea.

Balantzea positiboa izan da, beraz, Kontu-hartzaileak dioenaren arabera, krisiaren aurkako neurriak hartzen lagunduko du.

Bozketa

Eztabaida bukatu eta gero eta bertaratutako herritarrei esku hartzeko aukera emanda, Alkateak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (PNV4, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2, EB-BERDEAK/ARALAR 1, PP 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0.

Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Alkate jaunak gai zerrendako zortzigarren puntuaren berri eman du.

8.Uraren kudeaketa integrala

Proposamena

Uraren ziklo integrala Udalak eta Gipuzkoako Ur Partzuergoak elkarrekin kudeatzeko Gipuzkoako Ur Partzuergoaren proposamena azaldu da, hau da, goiko eta beheko sareen kudeaketa, saneamendu hornikuntzaren kudeaketa eta inbertsio eta hobekuntzen egikaritzea. Udaleko kontu-hartzaileak zerbitzu honen kudeaketaren balorazio ona egin du.



Uraren Zerbitzu Integralaren Ordenantza Arautzailearen proposamenaren berri eman dute.

2009ko uztailaren 15eko Osoko Bilkurako Gaien Batzordeko aldeko erabakiarekin, honako akordio proiektua onartzea proposatzen da:

- 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera Gipuzkoako Uren Partzuergoarekin batera uraren ziklo integrala kudeatzea, Udal honek Aguas de Gipuzkoa-Gipuzkoako Urak SArekin batera parte hartzen du.
- Uraren Ziklo Integrala arautzen duen Ordenantza onartzea eta Gipuzkoako Uren Partzuergoari komeni denean berritzeko edo aldatzeko baimena ematea.
- 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera Gipuzkoako Uren Partzuergoak finkatutako tasak onartzea eta Partzuergoari horiek eguneratzeko baimena ematea, egitura aldatu gabe, 2/2004 Foru Arauaren 7.2 artikulua ezartzen duenaren arabera.
- Kudeaketarako lankidetzaren hitzarmenaren testua onartzea, eta Gipuzkoako Uren Partzuergoaren esku uztea ziklo integralaren tasa eta prezioen kudeaketa, likidazioa eta bilketa.
- Alkateari-Ordiziako Udaleko lehendakariari zerbitzua kudeatzeko Gipuzkoako uren Partzuergoarekin sinatuko den hitzarmena gauzatzeko eskumena eman.
- Hartutako erabakia jakitera ematea 30 egun baliodunetan GAOn argitaratuta eta Iragarki taulan jarrita, interesatuek alegazioak eta iradokizunak egin ditzaten.
- Hartutako erabakiak behin betikotzat hartzea jendaurrera zabaltzeko epean alegaziorik jartzen ez badute.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate jauna

Jakinarazi du duela urte batzuk Uren Partzuergoak Udalari ura kudeatzeko eskaintza egin ziola.

Proposamena aztertzen eta eztabaidatzen denbora dezente igaro ondoren, uraren kudeaketa integrala Uren Partzuergoarekin hitzartzea komenigarria dela ondorioztatu da.

Zerbitzua hobea izango dela uste du eta azpiegiturak ere hobetuko direla. 2.000.000 euro baino gehiagoko inbertsioak aurreikusi dira, eta erabiltzaileentzat informazio bulego bat jartzea udalerrian.

Ur Zerbitzuko langilearekin hitzarmena bat egin da.

Leunda jauna

Adierazi du erabakia hartu ahal izateko ez duela nahikoa informazio jaso, baina beste batzuetan baino informazio gehiago jaso duela.



Kontu-hartzailearen txosten ekonomikoa eskatu zuela adierazi du, eta baita Partzuergoko estatutuak ere, eta ez dituela agiri horiek jaso.

Bere ustez erabaki bat hartu ahal izateko informazioa izan behar du eta konparatzeko modukoa, eta baita planning bat ere.

Bere ustez ez dute nahiko informazio eman eta behin baino gehiagotan salatu duen bezala ez dute jaramonik egiten. Informazioa jaso zuen lehen aldia eta bilera uztailaren 10ean izan zen.

Beraien iritzia kontuan izan gabe erabakia hartu dute eta beste behin ere ez dute oposizioa kontuan izan.

Gobernuak hautesleen %56rekin funtzionatzen du eta "jauregiko" jabeak izango balira bezala jokutzen dute, legitimazio askorik izan gabe.

Kontu-hartzaile jauna

Berak ia beti bezala txostena Alkatearentzat egin zuela esan du eta horrelako agiriak eskatzeko bidea zehaztu beharko litzatekeela eta tramitazioa finkatu.

Bozketa

Eztabaida bukatu eta gero eta bertaratutako herritarrei esku hartzeko aukera emanda, Alkateak proposamena bozkatzea eskatu du.

Bozketa egin eta gero, honako emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (PNV 4, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2, PP, PP 1)

Kontrako botoak: 1 (EB-Berdeak/Aralar)

Abstentzioa: 0.

Alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Alkate jaunak gai zerrendako hurrengo puntuaren berri eman du.

9.- Galde-eskeak.

Leunda jaunak, beste behin ere, ohiko osoko bilkurak beste ordu batean egiteko eskatu du, parte-hartzea bermatu ahal izateko.



Aipatu du apirilaren 28an idatziz eskatu zuela ohiko osoko bilkuren ordua 19:00etara pasatzeko. Udalaren Barne Araudiaren 6 artikulua erabakia egin du.

Ezin du gobernu taldearen erabakiaren aurka egin baina legea betetzeko eskatu dezake.

Gaurko osoko bilkurako deialdiaren aurka jotzen badu, eta gaurko bilkuran hartutako erabakiek kaltetuak izanez gero, ez du uste bera erantzulea izango denik.

Bi urte daramatza ahoz eta idatziz aipatutako ordutegi aldaketa eskatzen.

Huesa Andreak, jendartetik adierazi du Leunda jaunarekin erabat ados dagoela.

.....

Jendartetik pertsona batek, "Presoen lagunak" ordezkatzuz, Udalean mozio bat aurkeztu zuela esan du maiatzaren 28ko osoko bilkuran sartzeko, baina ez zutela kontuan hartu.

Ordiziako preso politikoek beraien eskubideak dituztela uste du eta ez du ulertzen nola ez den gaiari buruz hitz egiten edo nola ez den gaia ateratzen.

Alkate jaunak erantzun dio behin baino gehiagotan esan diola ez duela mozio politikorik sartuko eta gai horietarako beste foro batzuk daudela, Euskal Parlamentua hain zuzen ere.

Asenjo jaunak, EA ordezkatzuz, uste du EAren jarrera ezaguna dela: Herriarekin lotutako gaiez hitz egiteko prest daude eta PNVk gobernatzen duen beste herri batzuk ezagutzen ditu, Tolosa kasu, non horrelako mozioak sartzen eta tratatzen dituzten.

Beraiek ez dute bat egiten Ordiziakoarekin gai honetan.

.....

Huesa andreak Kultura zinegotziari galdetu dio ea egia den Udaleko webgunean Oiangu bizirik eta Gazte Asanbladari buruzko informazioa ateratzea galarazi duen.

Alkate jaunak esan dio gobernu taldearen erabaki bat izan zela.

Huesa andreak galdetu du zergatik Udaleko webgunean ezin duten Oiangu bizirik-ekin lotutako informazioa zintzilikatu.

Horrelako erabakirik ez hartzeko eskatu du, letraz letra ZENTSURA dela uste duelako.

.....

Huesa andreak Argiteria publikoko gaian hartutako neurriengatik Udala zoriondu nahi izan du.



Bi iradokizun egin ditu:

- 1.Argiak non jarri erabaki behar da.
- 2.Ibaiaren ertzean barrena egingo den bidegorrian, San Juan bidean, argirik ez jartzeko eskatu du.

.....

Huesa andreak CAF-i buruz galdetu du. UPABI pabilioiak urte bete darama martxan eta ez dago legeztatua. Legeztatzeko eskatu du eta piezetan (AGARRE) egitea aurreikusi zutena legearen barruan egiteko.

Azalpenak eskatu ditu.

Alkate jaunak azalpenak eman dizkio.

Asenjo jaunak zoriondu izana eskertu du, iradokizunak jaso ditu eta bere ustez Ordizian gai honen inguruko lan dezente egin da, baina argiteriaren homogeneotasuna mantendu beharra dago. Honekin batera Huesa andreak argiteria puntu batzuk murrizteko eskatzen duen bezala, beste herritar batzuek kontrakoa eskatzen dutela adierazi du.

San Juango bidegorriari buruz, jakinarazi du oraindik argiteria proiektua ez dela erabaki.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak osoko bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik behin-behineko Idazkariak egiaztatzen dut.

